

Pentekosteko Festaburua

Pazkoaldiko berrogeita hamargarren eguna. Israeldarrek *Xabuot* jaia ospatu ohi dute, grekoz *Pentekoste* deitua: *Zazpigarren asteko Jaia*, Sinai mendiko ituna gogoratuz. Jesusen garaian, Jerusalemera peleginazioan igotzeko eguna zen, baita juduak sakabanatuak zeuden herrialde eta nazioetatik etorrira ere. Judu ugari bildu ohi zen, ohitura eta mintzaira ezberdinak zituzten juduak. Jerusalemgo tenpluan Jainkoari hasikinak –lehenengo aleak eta fruituak– eskaini ohi zizkioten.

Egun hartan, apostoluek, afaltokian bildurik otoitzean ari zirela –apostoluekin batera, Andre Maria, Jesusen senideak eta beste jarraitzaile batzuk ere han zeuden–, Jesus piztuaren Arnasa, Espiritu Santua, hartu zuten. Haize-bolada indartsuaren tankeran agertu zitzairen, baita su-gar tankeran ere. *Espiritu Santuaz beteak gelditu ziren*, dio *Apostoluen Eginak* liburuak (2, 1-4). Horrela adierazten du San Lukasek, liburuaren egileak, nola bete zuen Jesusek Aitagana joan baino lehen egindako agintzaria, promesa: Aitagandik Arnasa, Espiritua bidali ziela, Jerusalem, Judean, Samarian eta mundu osoan Jesusen testigu izan zitezen (Eginak 1, 7-8).

Gertakari handi hau, Jesus piztiaren etorrera, Pazko-igandean kokatzen du Joanek bere ebanjelioan: *Asteko lehen egun hartan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; judu-agintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: “Bakea zuei”. Gero, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien: “Bakea zuei. Aita Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet”. Eta haien gainera arnasa botaz esan zien: “Har ezazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die” (Jn 20, 19-23).*

Espirituak eraginik, Jesusi buruzko testigantza ausarta eta gartsua ematen hasi ziren apostoluak eta egun hartan hiru mila lagun inguru bildu zitzairen Jerusalem, Bataioko uretatik igarorik.

Horrela, Espirituak eraginik Jesus piztuaren inguruan biltzen hasi zen eliz elkartea, Jesusen piztuerari buruzko testigantza egiten zuelarik eta haren mezua zabaltzen.

Eliz elkartearen liturgiak handikiro ospatu ohi du Pentekoste Jaia:

Pentekosteko Gaubeila ospatzeko gaiak eskaintzen ditu, Pazkoko Gaubeila eredutzat harturik. Bost irakurgai hautatu ditu, beren erantzun-salmo eta otoitzekin:

Hasiera 11, 1-9	Babelgo dorrean gertatua
Irteera 19, 3-8a. 16-20	Sinai mendiko ituna eta legea
Ezekiel 37, 1-14	Hezur iharrak berpiztu espirituaren eraginez
Joel 3, 1-5	Espirituaren isurtzeaz iragarpena
Erromatarrei 8, 22-27	Espiritua gure alde

Eta **Ebanjelioa:**

Joan 7, 37-39

Ur biziko errekek jarioko (Espirituaren etorrera adieraziz)

Pentekoste-igandeko eukaristian irakurgaiak honako hauek dira:

Lehenbiziko irakurgaia:

Eginak 2, 1-11

Pentekosteko gertakaria

Bigarren irakurgaia:

(A urtean) 1 Ko 12, 3b-7. 12-13

Espiritu berean bataiatuak gara (murgilduak)

(B urtean) Ga 5, 16-25

Espirituak guregan emandako fruituak

(C urtean) Erm 8, 8-17

Espirituak gidatzen ditu bataiatuak

Ebanjelioa:

(A urtean) Jn 20, 19-23

Har ezazue Espiritu Santua

(B urtean) Jn 15, 26-27; 16, 12-15

Egiaren Espiritua etorriko da

(C urtean) Jn 14, 15-16. 23b-26

Espirituak irakatsiko dizue dena

Pazko Igandean *Victimae paschali laudes* sekuentzia (1048 inguruan Vipone-k konposatua) kanta daitekeen bezala, Pentekoste Igandez *Veni, Sancte Spiritus* sekuentzia (1228 inguruan Esteban Langton, Canterbury-ko artzapezpikuak konposatua) abes daiteke.

Pentekoste Igandeko II. Bezperak ospatzeaz batera bukatzen du Elizak Pazkoaldia.

*Jesus María Arrieta Sagasti
Maiatza, 2026*